



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko otsailaren 10a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena. Zuzenketak aurkezteko epearen luzapena (4. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (5. or.).

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzekoa, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua (7. or.).

—Foru Lege proposamena, Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duena, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak aurkeztua (8. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira negoziata dezaten 2004rako aurreikusitako Europako Konbentziotik sortuko den itun berriari Hitzarmen Ekonomikoa protokolatzea, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Europako garapenari buruzko eztabaidan, Europa mailan, parte hartzeko eskubidea eta betebeharra duela, foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak aurkeztua (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun garraioaren arazoa konpontzen inplika dadin, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak aurkeztua (15. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen etorkinei hautesleak eta hautatuak izateko eskubidea aitor diezaien, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko zikloko ikastetxeak erregula ditzan, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak aurkeztua (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara erabiltzeagatik komunikabideei ematen zaizkien dirulaguntzen inguruko zenbait neurri har ditzan, foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak aurkeztua (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken ditzan ikasleak hartzea erabakitzeke zenbait irizpide orokor. Erretiratutako mozioa (19. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken ditzan ibilbideen tratamendua eta aniztasunerako arreta. Erretiratutako mozioa (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan irakaskuntza teknologikoen arauketa alda dezan. Erretiratutako mozioa (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozedura alda dezan. Erretiratutako mozioa (20. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan irakasle-karreraren tratamendua alda dezan. Erretiratutako mozioa (21. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken dezan goi-mailako lanbide-heziketan sartu ahal izateko batxilergo titulua edukitzearen nahitaezotasuna. Erretiratutako mozioa (21. or.).

F SAILA:**Galderak:**

- Galdera, Olaztiko harrobiko leherketen eraginei buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (22. or.).
- Galdera, Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruzkoa, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak egina (23. or.).
- Galdera, SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren funtzionamenduari eta egokitzeari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (24. or.).
- Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (25. or.).
- Galdera, Ave Maria ikastetxe publikoaren handitzeari buruzkoa, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak egina (25. or.).
- Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (26. or.).
- Galdera, konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direneko kasuen ehunekoari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (26. or.).
- Galdera, kopentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (27. or.).
- Galdera, Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (27. or.).
- Galdera, “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (28. or.).
- Galdera, “Sancho el Mayor” helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruzkoa, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak egina (28. or.).
- Galdera, Lizarran dauden bidezainen etxe hustuei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (29. or.).
- Galdera, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (29. or.).

- Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko kardiologoari esleituriko eginkizunei buruzkoa, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak egina (30. or.).
- Galdera, mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruzkoa, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak egina (31. or.).
- Galdera, Guardia Zibilak San Miguel de Aralar II Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasle eta irakasleei emaniko tratuari buruzkoa, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak egina (32. or.).

G SAILA:**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

- Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa. Izendapena (33. or.).
- Biltzarrean izan diren alta eta baja (33. or.).
- Foru parlamentari Concepción Fernández de Pinedo Sáez andrea Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartzea (34. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru lege proiektua, karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duena

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, ondoko Erabakia hartu zuen, besteak beste:

1.- Karguan aritzeagatik euren kideei ordainsariak ordaintzen dizkieten Nafarroako udalei konpentsazio ekonomikoak emateko sistema bat ezartzen duen Foru Lege proiektuari zuzenketak aurkezteko epea **2003ko otsailaren 11ko eguerdiko hamabiak arte** luzatzea. Aipatu foru lege

proiektua 2002ko abenduaren 16ko 119. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 6ko 9/1999 Foru Legea aldatzekoa

ZIOEN AZALPENA

Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen helburua da Nafarroako Foru Komunitatean eskubide sozialen gutun bat aldarrikatzea, gutxienez bi urtez hemen bizi izan diren herritarrei bide emanen diena lana eta oinarrizko errenta izateko, herritartasun eskubide guztiez baliatu ahal izan daitezen.

Eskubide sozialen gutunak herritartasun eskubide unibertsalen berrespenean du abiapuntu,

eskubide horiek bizimodu duina izan, kultura, etxebizitza, hezkuntza, osasun zerbitzuak jaso eta gainerakoen eskubide berdinekin gizartean erabat integratzeko baliabide ekonomiko nahikorik ez duten guztientzat direla ulertuta.

Nafarroan bizi diren herritarrek gizarte produktaren zati baterako egiazko eskubidea dutela onartzen da, lan merkatuan sartzerik ez dutenentzako oinarrizko errenta gisa. Halarik ere, Nafarroako zenbait herritarrek ezin du lanik izan, dela 65 urte baino gehiago duelako, dela duen egoeragatik –gaixotasun kronikoa edo % 33ko minusbaliotasuna baino handiagoa aitortzeko moduko ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentoriala–, eta ez zaie aitortzen esku-hartze sozialeko mekanismo hori izateko eskubiderik. Ondorioz, pertsona horiek ez dute inongo errentarik jasotzen edo jasotzen duten hori gaur egungo oinarrizko errentaren azpitik dauden kotizazio gabeko pentsio, kotizaziopeko pentsio eta pentsio asistentzialak dira.

Eskubide sozialen gutunak abiapuntu dituen printzipioak garatu egin behar dira, eta egungo legedia egokitu beharra dago, ahalbidetzeko, horrela, gizarte-talde horiek duten eskubidearen aitorpena, eta ahalbidetzeko, halaber, oinarrizko errentak gaur egun duen zenbatekoaren (hileroko lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 75 pertsona batentzat, eta familiako, gehienez ere, lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 125) handitzea. Aldi berean, oinarrizko errenta herritarren eskubidea dela aitortu behar da, eta osagarria ezarri behar dela txirotasunean bizi direnentzat, kotizazio gabeko pentsio, kotizaziopeko pentsio eta pentsio asistentziala besterik jaso gabe, pentsio horiek ez baitira nahikoa bizitzeko.

Kontuan harturik eskubide sozialen gutunak zuzenean lotzen dituela oinarrizko errenta eta enplegua, beharrezkoa izanen litzateke abiapuntua lanbidearteko gutxieneko soldataren balioa izatea, gaur egun duen zenbatekoa ez baita txirotasunaren mugara iristen –nazioarteko irizpideen

arabera, batez besteko errentaren (hau da, egun, 3 milioi pezeta urtean) % 50ean dago muga hori. Gure oinarritzko errenta, une hauetan, batez besteko errentaren % 25etik beherakoa da, eta, beraz, muturreko txirotasunaren mugatik behera dago; Estatuan, hala zenbatekoa nola errenta eskuratzeko baldintza horiek gaindituta daude.

Datu estatistiko guztien arabera, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuko maila sozioekonomiko altuenetakoa du eta Estatuko batez besteko bigarren soldatarik handiena; hileko oinarritzko soldatak, ordea, gure erkidegoko langileen batez besteko soldataren % 21 egiten du. Horrek eraman behar gaitu, nahitaez, 9/1999 Foru Legeko xedapenak egokitzea, bermatuta egon dadin foru lege berorren betetzea; izan ere, legearen esanetan, herritarren eskubidea da produktu sozialaren zati bat oinarritzko errenta gisa jasotzeko eskubidea, bai lana bilatu eta aurkitzen ez dutenentzat bai lan merkatuan sartzeko aukerarik inoiz izanen ez dutenentzat.

Objektiboki, egoera ekonomikoak aukera ematen digu beharrezko hobetze horri aurre egiteko; aukera historiko paregabea dugu Nafarroako populazioaren 100eko 6ak eta bizitzeko beste norbaiten beharra duten pertsona-taldeek jasaten duen txirotasun sekulakoa eta gizarte bazterketa apaltzeko. Barne Produktu Gordinaren aldetik, Foru Komunitateak eta Ogasun Publikoak bere gain har dezakete kostu hori, azken urteotan izaniko aurrekontu superabitari esker, presio fiskala jaitsi eta PFEZaren zenbait erreforma aurrera atera dituen bezalaxe; erreformok egoera ekonomiko onena duten gizarte-taldeentzat izan dira onuragarri, eta, aldiz, gizarte-talde txiroenei lagundu behar diete.

1. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. tituluari beste artikulua bat gehituko zaio.

“Artikulu berria. Gizarte-sustapena

Oinarritzko errentaren zenbatekoa, halaber, gizarte-sustapenerako mekanismo izanen da botere publikoen babes berezia behar duten pertsonentzat, hala nola 65 urte baino gehiagoko pertsonak, gaixotasun kronikoa duten pertsonak eta % 33ko minusbaliotasuna baino handiagoa aitor-

tzeko moduko ezgaitasun fisiko, psikiko edo sensoriala duten pertsonak, baldin eta pertsona horiek ez badute dirusarrerarik edo kotizazio gabeko pentsio, kotizaziopeko pentsio eta pentsio asistentzialen ondorioz dituzten dirusarrerak oinarritzko errenta baino baxuagoak badira; hori hala bada, dituzten dirusarreraren osagarri bat jasoko dute, oinarritzko errentaren zenbatekora heldu arte.”

2. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. tituluaren 4. artikulua edukia honako honekin ordeztzea:

“4. artikulua. Zenbatekoa.

Oinarritzko errentaren zenbatekoa, hasieran, lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 85eko dirusarreraren adinekoa izanen da pertsona bakarrarentzat; lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 15 gehiago bigarren pertsonarentzat; lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 10 gehiago hirugarrenetik aurrerako pertsona bakoitzeko.

Familia unitate batek ezin izanen du lanbidearteko gutxieneko soldataren 100eko 150 baino gehiago jaso oinarritzko errenta edo gizarte soldata gisa.”

3. artikulua. Eskubide sozialen gutun baterako apirilaren 9ko 9/1999 Foru Legearen III. tituluari beste artikulua bat gehituko zaio.

“Artikulu berria. Oinarritzko errentaren zenbatekoa, urtero, lanbidearteko gutxieneko soldataren % 5 igoko da hurrengo hiru aurrekontualdian, lanbidearteko gutxieneko soldataren % 100eko 100era heldu arte.”

4. artikulua. Azken xedapen berria.

“Azken xedapena. Foru lege hau garatzeko, Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio egokitzeke Oinarritzko errenta arautzen duen apirilaren 19ko 120/1999 Foru Dekretua, abuztuaren 17ko 58/1999 Foru Agindua eta 9/1999 Foru Legean oinarritzen diren gainerako arauak.”

5. artikulua. Azken xedapen berria.

“Azken xedapena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.”

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Demokratikaren Elkargunea Parlamentuko Taldeak Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua sortu zuen otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legea aldatzekoa

Nafarroako Ingurugiro arloko Kontseilua otsailaren 17ko 1/1993 Foru Legearen bidez sortu zen. Lege horren zioen azalpenean adierazten denez, hartan partaide izanen da Foru Komunitateko Administrazioaren funtzionarioez gainera, ikerkuntzako, natura babestu eta ikertzeko erakundeetako edo elkarteetako eta naturari lotutako kirol

elkarteetako profesionalen ordezkari zabalak ere.

1/1993 Foru Legeko 3.1.d) artikulua ezartzen duenez, kontseilukide izanen da Nafarroako Ehiza eta Arrantza Federazioko ordezkari bat. Gure ustez, Nafarroako Ehiza Federazioak gaur egun ehiztari nafarren parte bat baizik ez du ordezkatzeko; izan ere, haren estatutuen arabera, lehiaketazko ehiza-kiroleko ehiztari federatuak baizik ez ditu ordezkatzeko eta, hortaz, beharrezkoa da ehiztariak kontseiluan duten ordezkari handitzea, kontseilukide eginez ehiztari nafarren gehiengoa ordezkatzeko duten beste elkarte batzuk, ehiza aisialdiko kiroltzat dutenak hain zuzen ere.

Nabarmendu beharrezkoa da Nafarroako Ehiza Federazioa zela ehiztarien ordezkari bakarra legea onetsi zenean; gaur egun, ordea, badira beste elkarte batzuk hark baino hiru bider gehiago bazkide dituztenak, baina, hala ere, Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emailean eztabaidatzen diren gaiak ezin dira defenditu ingurumenaren arloko kontseiluan, ez baitaude bertan ordezkariak.

Nafarroako Ehiztarien Elkarteak (ADECANA), besteak beste, ondoko helburuak ditu: erakunde publiko eta pribatuetan gure erkidegoko ehiztarien herri-elkarteak, ehiztari-taldeak nahiz ehiztari independenteak ordezkatzeko, ehiza-aberastasuna kontserbatu, sustatu eta zentzuz aprobetxatzea bilatzen duten jarduketak, bai eta ehiza-aberastasuna hobeki babestu, kontserbatu eta sustatzea ere. Elkarteak ehiztarien herri-elkarteetako ehiztari nahiz ehiza-barruti ugari ordezkatzeko ditu.

Horregatik guztiagatik proposatzen da 3. artikuluko 1. idatz-zatiko d) letra aldatzea.

3.1.d) artikulua aldatzeko **artikulu bakarra**.

3.1.d) artikulua. Ehiza eta arrantza federazio bakoitzak izendatutako ordezkari bat, Nafarroako Ehiztarien Elkarteak (ADECANA) izendatutako ordezkari bat eta Ehizari buruzko Batzorde Aholku-emaileak ehiztarien ordezkarien artean izendatutako bi eskualdeko ordezkari.

Foru Lege proposamena, Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Unión del Pueblo Navarro Parlamentuko Taldeak Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1.- Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2.- Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proposamena, Gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen dituen maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea hein batean aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru Hobetzearen 53. artikuluari jarraikiz, barne osasunaren eta higienaren alorretan, gaur egun dituen ahalmenak eta eskumenak dagozkio Nafarroari eta, gainera, estatuko oinarritzko legeria lege bidez garatzea eta betearaztea.

Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeak –2002ko maiatzaren 13ko 58. NAO n argitaratua– gaixoaren zenbait eskubide, hain zuzen ere biziaren gaineko aurretiazko borondateak egitekoa eta informazioa eta agiri klinikoak eskuratzekoa, arautzen ditu

2002ko azaroaren 15eko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, berriz, Gaixoaren autonomia eta informazio nahiz agiri klinikoaren alorreko eskubide eta betebeharrak arautzen dituen azaroaren 14ko 41/2002 Legea. Lehen xedapen gehigarriaren arabera, lege hori oinarritzkoa da Espainiako Konstituzioko 149.1.1 eta 16. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Lege horiek jorratzen dituzten alorrak bat datozenez, beharrezkoa da maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legea estatuko legera egokitzea, hura oinarritzkoa baita, gaixoei eskubide berberak bermatzearren informazioari eta dokumentazioari dago-kienez.

1. artikulua. Ondoko datuak sartuko dira maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 11. artikuluko 2. idatz-zatiko b) letran:

- Larritasunari buruzko txostena.
- Ingresatzeko baimena.
- Anatomia patologikoaren txostena.

– Halakorik egonez gero, aurretiazko borondateen adierazpen-agiria, bai eta organo-emale iza-teari buruzkoa ere.

2. artikulua. Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 12. artikuluko 5. idatz-zatia aldatuko da. Honela geldituko da:

“5. Ikuskatze, ebaluatze, kreditatze nahiz eginkizunak betetzen dituzten eta behar bezala kreditaturik dauden osasun-arloko langileek historia klinikoak eskura ditzakete, sorospenaren kalitatea, gaixoaren eskubideekiko errespetua edo zentroak gaixoei, erabiltzaileekiko edo osasun-administratioarekiko duen beste edozein betebeharrak bete ote den egiaztatze eginkizunak betetzen dituen bitartean.”

3. artikulua. Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 13. artikulua aldatuko da. Honela geldituko da:

- “13. artikulua. Agiri klinikoak gordetzea.

1. Osasun zentroek agiri klinikoak gorde beharra dute, segurtasunez eta behar bezala mantentzen direla bermatzeko moduan hain zuzen ere, baina ez jatorrizko euskarrian nahitaez, gaixoari behar bezalako laguntza emateko kasuan-kasuan beharrezkoa den bitartean eta, gutxienez ere, laguntza-prozesu bakoitzeko senda-agiriaren egunetik bost urte igaro diren arte.

2. Edozein kasutan, historia klinikoan, gaixoa identifikatzeko datuekin batera, honako hauek gorde behar dira gaixoa hil denetik gutxienez ere bost urte igaro diren arte: argibide ondoko baime-na, senda-agiria emateari buruzko txostenak, txosten kirurgikoak, erditze-erregistroa, anestesiarri buruzko datuak, azterketa osagarriari buruzko txostenak eta nekropsia-txostenak.

3. Agiri klinikoak, indarreko legeriarekin bat, ondorio judizialearako ere gordeko da. Orobat gordeko da epidemiologia, ikerkuntza edo Osasun Sistema Nazionalaren funtzionamendu nahiz antolamendu mailako arrazoiak daudenean. Ukitutako pertsonen identifikazioa ahal den neurrian ekiditeko moduan erabiliko dira agiri horiek.

4. Osasun arloko profesionalak gaixoen laguntza-prozesuari buruzko dokumentazio kliniko ordenatu eta sekuentziala sortu eta gordetzen lagundu behar dute.

5. Gaixo ospitaleratuak dituzten zentroek nahiz osasun arloko zerbitzuen irizpideari jarraikiz beste edozein laguntza mota jasotzen duten behar beste gaixo artatzen dituztenek harrera eta dokumentazio klinikoko unitatearen bidez kudeatuko dute historia klinikoa, unitate horren ardura baita historia klinikoak artxibo bakar batean biltzea. Historia kliniko horien zaintza osasun zentroko zuzendaritzaren ardura izanen da.

6. Euren jarduera banaka garatzen duten osasun arloko profesionalak dira sortzen duten laguntza-agiriak kudeatu eta zaintzeko arduradunak.

7. Dokumentazio klinikoari aplikatzekoak dira datu pertsonalak dituzten fitxategiak gordetzeari buruzko legerian eta, oro har, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritako segurtasuneko neurri teknikoak."

4. artikulua. Maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeko 14. artikuluko 3 eta 4. idatz-zatiak aldatuko dira. Honela geldituko da:

"3. Gaixoak ez du historia klinikoaren dokumentazioa eskuratzeko duen eskubidea baliatu ahal izanen baldin eta gaixoaren interes terapeutikoarengatik hartan jasotako datuen konfidentziasunerako hirugarren pertsonak duten eskubidearen kaltetan bada, ez eta dokumentazioa taxutzen parte hartu duten profesionalen eskubidearen kaltetan ere, profesional horiek ohar subjektiboen gaineko zuhurtasuna balia baitezakete dokumentazioa eskuratzeko eskubidearen aurrean.

1. Osasun zentroek eta banaka jarduten duten fakultatiboek hildako gaixoari familiakoak nahiz izatezko harremana izateagatik lotutako pertsonen soilik emanen diete historia klinikoa, salbu eta hildakoak espresuki debekatu badu eta hala kreditatzen bada. Edozein kasutan, hirugarren pertsona batek bere osasuna arriskuan egoteagatik historia klinikoa eskuratzen badu, behar-beharrezkoak diren datuak baizik ez ditu eskuratuko. Ez da emanen ez hildakoaren intimitateari ez profesionalen ohar subjektiboei buruzko informaziorik, ez hirugarrenak kaltetzen dituenik ere."

5. artikulua. Xedapen gehigarri bat gehituko zaio maiatzaren 6ko 11/2002 Foru Legeari. Hona:

"Bosgarrena. Gaixoaren senda-agiriari buruzko txostena, mediku-ziurtagiriak eta txosten tekniko, estatistiko nahiz administratiboak betetzeari buruz osasun-egintzak direla-eta profesionalak dituzten betebeharrak estatuko oinarritzko legerian ezartzen denari lotuko zaizkio."

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Nafarroako Gobernuari esku ematen zaio foru lege honek ezarritakoa erregulamenduz garatzeko.

Bigarrena. Indarrik gabe uzten dira foru lege honetan ezarritakoari aurka egiten dioten xedapen guztiak.

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira negoziata dezaten 2004rako aurreikusitako Europako Konbentziotik sortuko den itun berrian Hitzarmen Ekonomikoa protokolizatzea

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira negoziata dezaten 2004rako aurreikusitako Europako Konbentziotik sortuko den itun berrian Hitzarmen Ekonomikoa protokolizatzea".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Biltzarreko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko. Honen bidez, Europako Konbentziotik sortuko den tratatu berrian Hitzarmen Ekonomikoa protokolizatzea eskatu du.

Zioen azalpena:

Hitzarmen Ekonomikoa, Nafarroaren eta estatuen arteko finantza nahiz tributu arloko harremanak arautzeko sistema tradizionala den aldetik, gure autogobernuaren oinarritzko zutabeetako bat

da. Harreman politiko horrek ituna du oinarri, eta hartara, inork ere ezin dio inori ezer inposatu, eta elkarrizketa, negoziatzea eta akordioa behar-beharrezkoak dira.

Hala ere, Espainiako estatua Europako Ekonomia Erkidegoan sartu zenean –artean 1986ko urtarrilaren 1a–, ez zen aintzat hartu hitzarmen ekonomikoaren figura. Behar bada, bestelako lehentasunak izanen zirelako edo Europa mailako zerga-harmonizazioa urrun samar ikusten zelako, gerta zitekeenik ere uste ez zelako.

Gure enpresaburuei nahiz eragile ekonomiko eta sozialei segurtasun juridikoa eskaintzearen, hitzarmen ekonomikoari Europako Batasuneko esparru juridikoan jasota agertzeko unea iritsi da. Esparru juridikoan jasota agertuko litzateke konstituzio-itun berrian protokolizatuz gero eta eragin positiboa izanen luze; izan ere, Europako Batasunak izaera orokorreko zerga sistematzat hartuko luke hitzarmen ekonomikoa, eta ekidin egingen litzateke erkidegoko erakundeek interpretazio arbitrario eta okerrak egin ahal izatea.

Horrenbestez, beharrezkoa izanen litzateke konstituzio-itunean protokolo bat erants dadin proposatzea Espainiako Gobernuak 2004ko Gobernu-arteko Konferentzian. Protokolo erantsi horretan jasota geratuko litzateke ezen Espainiako estatuan izaera orokorreko bost zerga-arabide daudela (estatua, Nafarroako Foru Komunitatea –hitzarmen ekonomikoaren bidez– eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru aldundiak –kontzertu ekonomikoaren bidez–).

Hori dela-eta, Parlamentuko osoko bilkurak ondoko erabaki proposamena onestea proposatzen dut:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu

Europako Konbentziotik nahiz 2004an egitekoa den Gobernu-arteako Konferentziatik sortuko den tratatu berrian Hitzarmen Ekonomikoa protokolizaztea negoziatzen, Nafarroaren zerga-autogobernuaren ezaugarriekin bat. Horrela, Europako Batasunak, arlo horretako jarduketari begira, ain-

tzat hartuko du Espainiako estatuan izaera orokorreko bost zerga-administrazio daudela.

Iruñean, 2002ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: José Manuel Goikoetxea
Askorbe

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Europako garapenari buruzko eztabaidan, Europa mailan, parte hartzeko eskubidea eta betebeharra duela

FORU PARLAMENTARI JOSÉ MANUEL GOIKOETXEA ASKORBE JAUNAK AURKEZTUA

Foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe jaunak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak adierazten du Europako garapenari buruzko eztabaidan, Europa mailan, parte hartzeko eskubidea eta betebeharra duela".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osoko Bilkuran egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Eusko Alkartasuna/Eusko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco Parlamentuko Taldeko foru parlamentari José Manuel Goikoetxea Askorbe, Biltzarreko Erregelamenduko 192. artikuluan eta hurrengoetan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du Biltzarreko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Estatu edo/eta gobernuburuek Europaren etorkizunari buruzko Laekengo Adierazpena onetsi zuten 2001eko abenduaren 14 eta 15ean. Haren bidez, Europako Konbentzioa biltzeko deia egin zuten, Europako Batasunaren etorkizuneko garapenaren funtsezko auziak aztertzeko eta erantzunak bilatzeko.

Europako Konbentzioak erkidegoko tratatuak aldatzeko metodoaren aldaketa ekarriko du, eta, hortaz, dei egiten zaie eztabaida horretan parte hartzera, euren iritzia eta ekarpenak egitera alegia, arduradun politiko, ekonomiko, sozial, kultural eta zibilei.

Gure iritziz bada, hori guztia kontuan hartuz, Nafarroako Parlamentuak Europa mailako eztabaida horretan parte hartzeko eskubidea eta are beharra du, bere iritzia eman eta ekarpenak egin ez.

Hori dela-eta, EA/EAJ-PNV Parlamentuko Taldeak osoko bilkurak ondoko erabaki proposamenaren onestea proposatzen du:

Nafarroako Parlamentuak:

1. Adierazten du ezen EBren balore izan behar dutela gizakiaren duintasunarekiko errespetu osoa eta, horrenbestez, norbanakoaren nahiz taldearen eskubideekikoa. Horien artean sartu beharrekoak dira kultura eta hizkuntza aniztasunarekiko errespetua, gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekikoa eta haurren babesa. Halatan, EBren zeregina da Europako herrien arteko batasun gero eta estuago, federalago eta solidarioagoa egitea, haien aniztasuna, haien nortasun nazionala eta haien hizkuntzak errespetatuz. EBren helburu izan behar dute bere herritarren eskubide osoak babestea, aurrerabide ekonomiko eta sozial jasangarria sustatzea, garapen teknologikoa bultzatzea, askatasun, segurtasun eta justizia esparru bat sortzea, kanpoan haren zeregina sendotzea eta europar identitatea berrestea herrien kultura nahiz hizkuntzen aniztasunari begira.

2. Proposatzen du EBren eskumen osoak, erdibanakoak nahiz laguntza neurriak estatuen, estaturik gabeko nazioen eta legegintza ahalmena

duen erregioen eskumenei begira argitzea; hori egite aldera, subsidiaritate eta proportzionaltasun printzipioak aplikatuko dira, horietako batzuk zaharkiturik daudela ikusiz gero kendu egingen dira eta mantendu egingen dira egungo 308. artikuluan ezarritako prozedura eta helburuak:

- Eskumen osoak: Kanpo politikaren eta segurtasun komunaren definizio eta inplementazioa; Europako herritarren eskubide eta betebeharrak; barne merkatua, nekazaritza-merkatuak; arrantza-merkatuen politika; kanpo-merkataritzako politika; elkartze tratatuen bukaera; euroari buruzko monea-legeak; lehia-politika; kohesio-politika; EBren aurrekontua; finantza-erakundearen gaineko ikuskapena; Europako Batasuneko erakundeetako hizkuntza arauak. Europako Batasuneko organismoen antolamendua; Europa mailako estatistikak.

- Eskumen erdibanakoak: arlo horietan, EBk, estatuak eta estaturik gabeko nazio edo erregio konstituzionalek dituzte eskumenak. EBk subsidiaritate eta proportzionaltasun irizpideei jarraikiz soilik garatuko litzuzke eskumen horiek. Ondokoak hain zuzen ere: ingurumenaren babesa; kontsumitzaileei buruzko politika; garraioa; garraio-sareak; garapenerako lankidetzak; energia, energia nuklearraren arloko segurtasuna barne; EBren aurrekontuaren gaineko iruzurraren aurkako borroka; EBren kanpoko mugen kontrola; itsasoz haraindiko lurraldeak sustatzeko neurriak; ikerkuntza eta garapena.

- Eskumen osagarri edo laguntza neurriak: arlo horietan, EBk laguntza, sustapen nahiz koordinazio neurrien bidez soilik jardun ahal izanen luke. Ondokoak izanen lirateke: hezkuntza; kultura; eremu urriko hizkuntzak; gazteria; lanbide heziketa; osasun-babesa; estatuaren, estaturik gabeko nazioen eta erregio konstituzionalen aurrekontuaren gaineko ikuskapena. industria-politika, enplegu-politika; babes zibila; turismoa eta kirola.

3. Adierazten du beharrezkoa dela subsidiaritate printzipioaren behar bezalako kontrol politiko eta jurisdikzionala ezartzea. Horren kariatara, Parlamentuak haxe eskatzen du: bat, printzipioa formulatzean estaturik gabeko nazioak eta legegintzako boterea duten erregioak aipatzea. Bi, printzipioari buruzko Alemaniaren, Austriaren eta Belgikaren 3. adierazpena bere egitea Espainiako estatuak. Hiru, Batzordeak printzipio hori aintzat hartuz justifikatzea bere proposamenak. Lau, estatuak, estaturik gabeko nazioei eta erregio konstituzionalei Batasuneko Justizia Auzitegian errekurtsua jartzen uztea aipatu printzipioaren aplikazioa defenditzeko, kasuan kasuko eskumenekin bat etorritik. Bost, estatu, estaturik gabeko nazio eta erregio konstituzionalak parlamentuei

alerta edo abisu goiztiarreko prozedura abiatu eta burutzeko gaitasuna ematea. Sei, estatu, estaturik gabeko nazio eta erregio konstituzionalei estimazio-tarte bat uztea EBko arauak aplikatzerakoan, arriskuan jarri gabe EBko lurralde osoan batera aplikatuko dela.

4. Adierazten du Europako eredu soziala EBren nortasunaren ezaugarria dela, politika ekonomikoari buruzkoak adinako maila eta intentsitatea izan behar duela, sendotu egin behar direla mintzakide ekonomiko eta sozialen zeregina eta gizarte-elkarrizketa, eta EBn aitortu egin behar direla interes orokorreko zerbitzu publikoen babesa, beste herrialde batzuetako herritarrak integartzeko politika egokia, gizarte-bazterkeriaren aurka neurtzeko moduko xedeekin borrokatzea, gizarte-dumpingaren aurkako borroka, gizarte-aurreikuspeneko estaldura –arrisku partekatuen formula-ekin– ezartzeko aukera, negoziazio kolektiboa, elkartzeko eskubidea, soldata-eskubidea eta greba egitekoa, laneko istripuei aurrea hartzea eta osasunaren babes egokia, bereziki aipatuz patologia handien aurkako borroka, hiesa edo minbizia kasu.

5. Adierazten du ezen, etorkizuneko konstituzio-tratatuan, asilo eta immigrazio politika baterako eskema ezarri behar duela EBk. Politika horrek gizalegezkoa eta oinarritzko eskubideen errespetua nahiz integrazioa lortzera bideratua beharko du, eta horretarako herritar horiek babesteko politikak abiarazi beharko dira, haien sorterriaren garapen demokratiko eta ekonomikorako politikak, arrazakeriari eta xenofobiari aurre eginez.

6. Adierazten du beharrezkoa dela erkidego osora hedatzea askatasunaren, segurtasunaren nahiz justiziaren esparrua, orokorra izan behar duela gehiengo kualifikatuaren bidezko botoa, ezarri egin behar direla Europako Parlamentuaren, estatuaren nahiz, kasuan-kasuan, estaturik gabeko nazioen eta arloan arloko eskumenak izaki legegintzako ahalmena duten erregioen kontrol politiko egokiak. Orobat jaso behar da Europo- len erreforma baldintzaturako aukera, Eurojusten garapena eta arian-arian doituz joanen direla hainbat terminoren definizioak –krimen-egozte, zehapena, zigor-arloko prozedura eta zigorrak betearaztea–.

7. Adierazten du beharrezkoa dela EBko erakundearen funtzionamendu eta eskumenak egokitztea, herritarrei haien funtzionamendua eta ardura ulertzen laguntzearen, zenbait defizit demokratiko arintzearekin batera.

a) Europako Kontseilua: bultzatzaile eta orientatzailea. EBren politiken orientabide orokorrak

eskaini eta bultzatzeko zereginari eutsi beharko lioke. Estaturik gabeko nazioen eta legegintzako ahalmena duten erregioen lankidetzak eskatu beharko luke, kasuan kasuko estatuaren barne ordenamendua errespetatuz betiere, baldin eta entitate horien intereseko gaiak eta interesak jorratzen badira.

b) Europako Parlamentua: erabakitzeke ahalmen demokratiko handiagoa eta erregio-barrutiak: konstituzio tratatu berriak pausoak eman beharko lituzke parlamentuari, legegilea den aldetik eta haren legitimitate demokratikoarekin bat, dagozkion eskumenak ematerakoan, aurrekontu oso-oso barne. Europako Gobernuko edo Europako Kontseiluko lehendakaria hautatu eta izendatzen duen erakundea izan beharko luke. Ondoren, Europako Kontseiluak berretsiko luke. Halaber, Europako Batzordearen aurkako zentsura-mozioa aurkezteko aukera izan beharko luke. Haren legegintza- nahiz kontrol-ahalmena sendotu beharko lirakeke, tratatuaren bilakaera aintzat hartuta. Erregio-barrutien sistema ezarri beharko litzateke estaturik gabeko nazio eta legegintza ahalmena duten erregioentzat, estatuaren barne ordenamendua errespetatuz.

c) Europako Batzordea: Europako Gobernuak: Europako Batzordea Europako egiazko Gobernu bihurtu beharko litzateke, egiazko botere exekutiboa, orientabide politikoki argi eta koherentearekin, Europako integrazio prozesuaren harmonizazioa zuzendu eta bermatzen duena. Lehendakaria Europako Parlamentuak hautatu beharko luke, eta lehendakariordeak kanpo harremanetarako kargua hartu beharko luke bere gain, eta, aldi berean, EBren kanpo politika komunerako goi ordezkaria izan beharko luke. Aurrerantz ere hark bakarrik izan beharko luke eskumenak esleitu, bitartekoen proportzionaltasuna eta eraginkortasun-testa erabakitzeke ekimen-eskubidea, subsidiaritate printzipioaren aplikazioa zainduz, mekanismo berriak xedatuarekin bat.

d) Europako Batasuneko Kontseilua edo Ministroen Kontseilua: gardentasuna, sinplifikazioa eta "bundesratizazioa": zehaztu egin behar da lehendakariordea sei hilabete behin aldatzeko sistema, baina estatu-kide guztien eskubide berdintasunaren printzipioa gordez, handi ala txiki izan. Legegilea den aldetik, parlamentu klasiko bihurtu beharko litzateke, eta bigarren ganbera izan –erkidego mailako lurralde-ganbera edo bundesrat dela-koa–, bilkura guztiak ageriki eta gardentasunez eginez. Estatuaren ordezkariak osatu beharko luke gobernua zentralerako ordezkariak eta, kasuan kasuan, estaturik gabeko nazioetako eta legegintza ahalmena duten erregioetako ordezkariak,

estatu etako parlamentu etako ordezkariak eta, kasuan kasuan, estaturik gabeko nazio etako eta legegintza ahalmena duten erregio etako ordezkariak ere, begirale gisa. Boto ponderatua dela eta, estatu etako exekutibo etako, estaturik gabeko nazio etako eta legegintza ahalmena duten erregio etako kideen artean banatu beharko litzateke, estatu bakoitzaren erabakia errespetatuz bakoitzaren konstituzio-ordenamenduari jarraituz.

e) Justizia Auzitegia: erkidego kuzenbidea- ren interpretazioaren eta errespetuaren bermatzailea. Egungo mekanismo guztiak izaten jarraitu behar du, eta haren jurisdikzioa zabaldu konstituzio- tratatu berriak jasotako arlo berrietara, oinarriko eskubideen gutuna kasu. Estaturik gabeko nazioek eta legegintza ahalmena duten erregioek beraien eskumenen defentsan aurkeztutako errekursoak tramitatzeko ahalmena izan behar du, subsidiaritate printzipioa erkidego mailan aplikatzen.

f) Erregioen Komitea eta Ekonomia- eta Gizarte- Komitea: haien boterea sendotu: Erregioen Komiteari erakunde maila aitortu beharko litzateke, horrek aurrekontu arloan eta eskumenen defentsaren arloan izanen lituzkeen abantailak abantaila, baina bakar-bakarrik elkarrekin erabakitzeke ahalmena onartzen baldin bazaio. Kideek, hala titularrek nola ordezkariak, parlamentu edo biltzar batean erantzuteko beharra duten hautetsi edo pertsonak izan beharko lirakeke, erakundearen izaera politikoa sendotzearen. Hala Batzordeak nola Kontseiluak idatziz erantzun beharko litzateke Erregioen Komiteari eta Ekonomia- eta Gizarte- Komiteari, baldin eta haiei kontsulta egitea beharrezkoa den gaietan Komitearen iritzia onartu edo jarraituko ez balitz. Erregioen Komiteak, halaber, bere eskumenen defentsan Justizia Auzitegira jotzeko eskubideaz gain, subsidiaritate printzipioaren aplikazioaren defentsarako eskubide berriak izan beharko luke.

g) Herrien Kongresua: Europako erakunde etako eta estatu etako parlamentu etako ordezkariak osatuko litzateke. Azkenean abian jartzen baldin bada, estaturik gabeko nazio etako parlamentu etako eta legegintza ahalmena duten erregio etako ordezkariak ere egon beharko litzateke, baina ez da zehazten haien beharra eta zer ekarpen egin litzateken.

8. Adierazten du konstituzio tratatu berriak estaturik gabeko nazioen eta legegintza ahalmena duten elkartutako erregioen figura jaso behar duela. Estatu-kide bakoitzak hautatuko lituzke horiek, eta ondoko eskubideak izanen lituzkete: Batzordeak kontsultatuak izateko baldin eta ekimenak eragiten badie, Justizia Auzitegian errekur-

tsoak jartzea erkidego mailan haien interesak defenditzeko, Europako Parlamentuko diputatuak erregio-barrutien arabera hautatzea, erkidegoko funtzionario kuota bat izatea, haien hizkuntza ofizialei aitorten ofiziala ematea –erkidegoko erakundeetan lan-hizkuntzak modu arrazionalen antolatze erabakia gorabehera– eta kasu kasuko berezitasunak, baldin eta EBren funtzionamenduari begira oztopo ez badira.

9. Adierazten du ezen Nafarroak, duen autogobernuaren arabera, Europako Batasuneko erabaki-prozesuetan estatuarekin negoziatu beharreko gradu eta formetan parte hartzeko eskubidea eta are erantzukizuna duela.

10. Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen ditu akordio politiko bat lor dezaten –bitariko batzordean batik bat eta arloko batzarrean subsidiarioki– Europako Batasuneko erakundeetan Nafarroaren parte-hartze instituzionalari begira tresna egokiak abiatzeko Nafarroaren autogobernuaren ezaugarriekin bat, bertarantzak, jarrerak eta botoa negoziatuz komitologian, Batasuneko Kontseiluaren eztabaida- eta erabaki-instantzietan, EBko Justizia Auzitegian Nafarroaren eskumen eta interesen defentsan aritzeko mekanismo bat jasoz eta Europako Parlamentuko hauteskundeetarako erregio- edo autonomia-barrutiak ezarriz.

11. Adierazten du ezen Nafarroako Parlamentuak, legegintza ahalmena duen ganbera den aldetik –han biltzen dira nafarren subiranotasuna eta borondatea–, EBk estatuetako legegintza-ganberentzat ezartzen dituen kontsulta-, koordinazio-, elkarrizketa- eta, kasua bada, erabaki-mekanismo guztietan parte hartzeko eskubide eta betebeharra duela.

12. Nafarroako Gobernu eta Espainiako Gobernu premiatzen ditu, Nafarroako Foruzaingoarentzat lortu beharreko izaera integralarekin eta Nafarroako autogobernuarekin bat, Foruzaingoak Europako polizien lankidetzarako mekanismoetan –erkidegokoak izan ala ez– parte hartzea negoziatzen.

13. Adierazten du ezen euskara, gainontzeko hizkuntzak bezala, Europa osoaren eta europar guztien kultura- eta hizkuntza-ondarea den aldetik, ofizialtzat hartu behar duela Europako Batasunak, Europako Batasuneko erakundeetan lan-hizkuntzak modu arrazionalen antolatze neurri logikoak gorabehera. Halaber, tratatu berriak Europako hizkuntza guztiekiko errespetu eta babes berezia aldarrikatu beharko luke, eta horiek bultzatzeko neurriak abiarazi beharko lituzke, bereziki aipatuz hizkuntzarik ahulenak, motherlandik ez dutenak eta desagertzeko arrisku bizian daudenak.

14. Proposatzen du konstituzio tratatu berrian mugaz gaindiko lankidetzari buruzko artikulua sartzea, euro-erregio moldez gisa horretako jarduketak garatzen laguntzeko.

15. Nafarroako Parlamentuko Lehendakariari proposatzen dio erabaki hau helaraz diezaien Europako Konbentzioari eta haren kideei, bai eta egoki irizten dituen erakunde, organismo eta antolakundeei ere.

16. Adierazten du ezen Europaren etorkizuna dela-eta aurrerantzean eman daitezkeen eztabaiden jarraipena egiteko eta horiek direla-eta jarrera bat adierazteko asmoa duela.

Iruñean, 2002ko abenduaren 30ean

Foru parlamentaria: José Manuel Goikoetxea Askorbe

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun garraioaren arazoa konpontzen inplika dadin

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun garraioaren arazoa konpontzen inplika dadin".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Osasun Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduen babesean, ondoko mozioa aurkeztu du eztabaidatu eta bozkatzeko:

Zioen azalpena

Osasun garraioak greba mugagabea bizi du une honetan Nafarroan, zerbitzu publiko horretako

langileek laneko baldintza kaskarregatik egiten ari direna.

Egungo egoera UPNren asmo pribatizatzaileari eta osasun zerbitzu horretan Foru Gobernuak eginiko aurrekontu-murrizketei zor zaie.

Egoera larri honek ukitzen duen zerbitzu publikoak gizartean duen garrantzia ikusita, ezinbestekoa da egoerari azkar bilatzea konponbidea; horretarako, beharrezkoa da aldeak –Nafarroako Gobernua, langileak eta sektoreko enpresak– ados jartzea.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

– Nafarroako Gobernuari exijitzea gatazka konpontzen inplika dadin, osasun garraioaren sektoreko beharrezko erantzun duin eta behin betikoa emanez, sektorea behar-beharrezkoa baita nafarrentzat.

– Foru Gobernuko Osasun Departamentuari exijitzea ahal duen guztia egin dezan sektoreko enpresen, langileen eta departamentuaren arteko bilera bat hainbat arinen egin dadin, konponbide duin bat lortze aldera.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 13an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen etorkinei hautesleak eta hautatuak izateko eskubidea aitortzeko

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen etorkinei hautesleak eta hautatuak izateko eskubidea aitortzeko".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean

argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Gizarte Gaietako Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierrak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, Nafarroan bizi diren etorkinen eskubide politikoaren onarpenari buruzko mozioa aurkeztu du, Gizarte Gaietako Bazotzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Zioen azalpena:

Azken hogeitun urteotan, eta bereziki azken bost urteotan, munduko hainbat tokitatik etorritako milaka pertsona jarri da Nafarroara bizitzen, eurentzat nahiz euren familientzat etorkizuna hemen lantzeko asmoak bultzatuta. Egoera hau ez da iragankorra: badirudi mugimendu hori hurrengo urteotan ere gertatuko dela.

Emakume eta gizon horiek gure erkidegoko kide bihurtu dira, euren ekarpena eta ahalegina geurera ekarriz. Haien seme-alabak gure alboan jaio eta haziko dira, eta gureekin joanen dira eskolara. Pertsona horietako zenbait –2.500 inguru– Europako Batasuneko beste herrialde batzuetatik datoz, eta legearen aldetik atzerritarrak badira ere, EBko tratatuei jarraikiz arautzen dira haien egonaldia eta eskubideak, eta ez Atzerritarren Legeari jarraikiz. Batasuneko atzerritarrak dira. Beste hainbat –24.000 inguru–, Nafarroan gehienak hain zuzen ere, Hirugarren Mundua deitu ohi denetik datoz, batez ere Hego Amerikatik, Magrebetik, Afrika Azpisaaharretik eta Europako Ekialdetik. Hain zuzen ere, planetako toki horietan metatzen dira indarkeria-gatazka asko eta asko, bai eta haustura sozial eta politikoak eta etorkizunik ilunenak ere. Pertsona horien oinarrizko eskubideak konstituzioak babesten ditu, baina Batasunetik kanpokoak direnez, hemen sartu, bizi eta lan egiteko eskubideak Atzerritarren Legeak arautu eta mugatzen ditu; izan ere, lege horrek zorrotz murrizten ditu administrazio-egoera irregularrean dauden etorkinen oinarrizko eskubideak.

EBko herrialdeetatik datozen pertsonak aitortu dute udal hauteskundeetan boto-emaile eta hautagai izateko eskubidea. Baina Batasunetik kanpoko etorkinei, bizilekua legez erkidego jakin batean izanagatik, ez zaie aitortzen toki mailako hautes-prozesuetan boto-emaile eta hautagai izateko eskubidea.

Guk diogu Nafarroan bizi den pertsona orok duela duintasunez bizitzeko eskubidea. Uste dugu ez dela posible gizarte ongi integratua –hori da Nafarroarentzat nahi duguna–, baldin eta eskubide berberak dituzten herritarrekin batera eskubideak murrizturik duen pertsona multzo iraunkorra –bere sorlekua dela medio– badago. Egoiliar horiei gure bizitza sozial, kultural eta politikokoan bete-betean parte hartzeko eskubidea ukatzeak demokrazia bera pobretzea dakar. Horregatik defenditzen dugu gurean bizitoki egonkorra duten pertsona guztiak tratatu behar ditugula herrikide gisa eta aitortu behar zaiela eskubidea dutela bere botoaren bidez erkidegoaren erabakietan parte hartzeko, dagoeneko haren parte baitira eta erabaki horiek haien etorkizunari eraginen baitiote. Horrek erraztu egingen du familia horiek gurean integratu eta sustraiak egitea; izan ere gure erkidegoan bizitzen jartzearren eta euren egoera erregularizatzearen lege arloko hainbat eta hainbat traba gainditu behar izan dituzte eta bertan haientzat nahiz haien seme-alabentzat bizitza hobea izaten saiatzen ari dira familia horiek. Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamenak aurkeztu ditugu:

1. Nafarroako Parlamentua Europako Batasunetik kanpoko pertsona adin-nagusiei, baldin eta gure erkidegoan legezko bizilekua hiru urtez izan badute, udal hauteskundeetan boto-emaile eta hautagai izateko eskubidea aitortzearen alde dago.

2. Nafarroako Parlamentua Europako Batasunetik kanpoko gizon eta emakume adin-nagusiei, baldin eta gure erkidegoan legezko bizilekua hiru urtez izan badute, Nafarroako foru hauteskundeetan boto-emaile eta hautagai izateko eskubidea aitortzearen alde dago.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiazten du estatuko edozein tokitan bizi diren etorkinen eskubide politikoen aitortzea –boto-emaile eta hautagai izateko eskubideena alegia– bultzatu eta eskatzera, legezko bizilekua hiru urtekoa denetik hasita, eskubide horiek baliatu ahal izateko beharrezkoak diren lege-aldaketak bultzatuz.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko zikloko ikastetxeak erregula ditzan

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK AURKEZTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da 0 eta 3 urte bitarteko zikloko ikastetxeak erregula ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Batzordean eztabaidatzeko:

0 eta 3 urte bitartean, hezkuntzak funtsezko eragina du pertsonen garapen integralari begira, eta horrenbestez, beharrezkoa da botere publikoek hezkuntza maila horretan lagun dezaten. Familia eta lan bizitza bateratze aldera eta emakumea gizarte maila guztietara heltze aldera, beharrezkoa da orobat botere publikoek haur horien zaintza eta laguntza bermatzea. Hori dela-eta, Nafarroako Ezker Batuak uste du kalitatezko haur eskolen sare publikoa sortu behar dela Nafarroan.

Ikusmolde horrekin arautu behar dira berehala 0 eta 3 urte bitarteko zentro publikoak. Arautze horren bidez, hezkuntza programa bat –haren metodologia eta edukiak barne– eta zentro horietan familiek esku hartzeko programa bat ezarri beharko lirateke. Orobat garatuko da ratioak, ordutegiak eta egutegiak, profesional kualifikatuak, instalazioak nahiz baimenak jasoko dituen araudi bat.

Nafarroan, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako plazen eskaintza publikoa handitzen ari da Gobernuak, toki entitateekin itunak eginez. Ez du sektore hori era publiko eta egokian arautu, ebazpenak ematera mugatu baita. Areago, Gobernuak haur hezkuntza arautzen duten oinarritzko arauak saihestu ditu, 1004/1991 Errege Dekretuan ezarritakoa urratu baitu. Beste erkidego batzuek, Asturiasek eta Euskal Autonomia Erkidegoak esaterako, zentroen kalitatea sustatu eta bermatzeari ekin diote.

Erabaki proposamena

– Nafarroako Gorteek Nafarroako Gobernuak premiatzen dute 0 eta 3 urte bitarteko haurren zentroak arautzeko foru dekretua taxu dezan. Dekretu horretan, familia eta hezkuntza programako eredu bat jaso beharko da. Orobat jasoko dira gelako ikasle ratioak; eskolako ordutegi eta egutegiak; profesionalen titulazioak eta instalazioek bete beharreko baldintzak.

– Dekretu horrek indarra hartu aitzin Nafarroako Gorteetako Hezkuntza Batzordean, nahiz bestelako estamentu publiko eta sozialetan eztabaidatuko da.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 20an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara erabiltzeagatik komunikabideei ematen zaizkien dirulaguntzen inguruko zenbait neurri har ditzan

FORU PARLAMENTARI MILAGROS RUBIO SALVATIERRA ANDREAK AURKEZTUA

Foru parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak ondoko mozioa aurkeztu du: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da euskara erabiltzeagatik komunikabideei ematen zaizkien dirulaguntzen inguruko zenbait neurri har ditzan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioaren biderapena onestea, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea eta haren eztabaida eta bozketa Hezkuntza eta Kultura Batzordean egitea. Erregelamenduko 193. artikuluan ezarritakoarekin bat, Parlamentuko taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezten ahalko dituzte, eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabiak baino lehen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

MOZIOAREN TESTUA

Batzarre-Askotariko Parlamentuko Taldeko eledun Milagros Rubio Salvatierrak, ondoko mozioa tramitatzea eskatzen du, Hezkuntza Batzordean eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioen azalpena:

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzearen 2002ko laguntzak eman ala ukatzeko prozesu osoan zehar zenbait jarduketa diskriminatzaile eta ustez legez kanpoko gertatu dira, are murriztaileak ere, zeren xede horretarako 2001ean bideratutako ekonomia-baliabideak ehuneko 16 murriztu dira.

Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak azaroaren 12an emaniko 219/2002 Ebazpenaren bidez Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzetarako deialdia onetsi zen. Hartan, aurreko deialdietan ez bezalako baldintzak eskatzen ziren, justifikatzen zail direnak.

Halatan, egunkariei nahiz aldizkako argitalpenei gainontzeko hedabideei eskatzen ez zitzaizkien baldintzak bete beharra ezarri zitzairen, hala nola "zabaltze eremu nagusia" Nafarroan izatea (telebistei soilik eskatzen zaie "Nafarroan aldizka

emititzea") eta haien "edizio jarduna 2001. urtea baino lehenago hasia eta deialdi hau argitaratu bitartean etengabe garatua beharko dutela izan", gainontzekoei halakorik eskatzen ez bazaie ere.

Irratien kasuan, telebistei eskatzen ez zaien beste klausula bat ere sartu zen, "emisio-kontzesioa izatea edo kontzesioa izapidean izatea" alegia.

Azkenik, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak abenduaren 31n emaniko 287/2002 Ebazpena aztertzen badugu –haren bidez eman ziren arestian aipatutako dirulaguntzak– eta ikusten badugu zein hedabideri ukatu zitzairen dirulaguntza, ematen du deialdia hasiera-hasieratik egin zela espresuki modu diskriminatzailean, dirulaguntza ukatu zaien hiru hedabidetatik bi oinarrietatik kanpo utzita, bai eta hirugarren bat ere, aurkeztu ere egin ez zena. Nabarra aldizkariaren kasuan, jarduna 2001 (?) urtea baino lehen ez hasteagatik, "Iruñeko Komunikabideak" Euskalerrria Irratiaren kasuan emisio-kontzesioa ez izatea edo kontzesioa izapidean ez izateagatik, eta "Egunkariaren" Nafarkaria astekariaren kasuan jarduna modu normalizatuan garatu ez izateagatik, aurreko dirulaguntza bat kentzean hartara behartuta gertatu bazen ere. Nafarroako Gobernuak ederki asko ezagutzen zituen alde aurretik datu horiek, honen aurreko deialdietan eskatu ez zirenak.

Iruñeko Komunikabideak enpresarena bereziki esanguratsua da. Jakina denez, urte askotan jardun duen irrati enpresa da hori. 1998an, lizentziak adjudikatzeko prozesu baten ondoren, ukatu egin zitzaion emititzeko lizentzia, eta horrek Parlamentuan ikerketa batzorde bat sortzea ekarri zuen; prozesu hark orobat ekarri zuen Parlamentuak prozesuari buruzko erabaki zeharo kritikoa onestea eta enpresak berak ebazteke dagoen errekurtsioa paratzea. Errekurtsioa jarri izana lasai asko uler zitekeen hedabide horrek "kontzesioa izapidean izatearen" seinaleztat, deialdiko oinarri berriek eskatutakoari jarraikiz. Oinarri horiek, 2002 urteko aldaketengatik ez balitz, enpresa horri 2000 eta 2001 urteetako dirulaguntza era normalizatuan jasotzeko bidea emanen zioten.

Datu horien argitan esan daiteke dirulaguntzak emateko deialdia eta kontzesioa diskriminatzaileak izan direla oso, zenbait hedabide kanpoan

uzteko borondate espresuarekin hain zuzen ere; ez dakiguna da zergatik izan den, haien ildo editorialarengatik, euskara sustatzeko duten zeregin funtsezkoarengatik, lehen aipatutako ikerketa batzordearen ondorioz hasitako prozesuan izandako protesta-jarrerarengatik ala guztiarengatik izan den. Edozein modutan ere, jokatzeko modua autoritarioa eta aniztasunaren nahiz euskararen sustapenaren aurkakoa izan da. Hori guztia dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedura juridiko eta administratiboak abiaraz ditzan, aurtengo deialdian dirulaguntzarik jaso gabe gelditu diren arestian aipatutako hedabideei

dirulaguntza emateko –aurreko deialdietan emandakoa gehi KPIren parekoa–, Nafarroako prentsa, irrati eta telebistetan euskara erabiltzeko dirulaguntzen kontura.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beharrezkoak diren prozedura juridiko eta administratiboak abiaraz ditzan, “Euskarari buruzko programak gizarte hedebideetan” izeneko kontusaileko zenbatekoa 2001ekoaren parekoa izan dadin 2003an, gehi igaro diren bi urteotako KPI.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 31n

Foru parlamentaria: Milagros Rubio Salvatierra

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken ditzan ikasleak hartzea erabakitzeko zenbait irizpide orokor

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: “Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken ditzan ikasleak hartzea erabakitzeko zenbait irizpide orokor”.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken ditzan ibilbideen tratamendua eta aniztasunerako arreta

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken ditzan ibilbideen tratamendua eta aniztasunerako arreta".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan irakaskuntza teknologikoen arauketa alda dezan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan irakaskuntza teknologikoen arauketa alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozedura alda dezan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatzeko prozedura alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan irakasle-karreraren tratamendua alda dezan

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektuan irakasle-karreraren tratamendua alda dezan".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 19ko 68. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken dezan goi-mailako lanbide-heziketan sartu ahal izateko batxilergo titulua edukitzearen nahitaezkotasuna

ERRETIRATUTAKO MOZIOA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Espainiako Gobernuak premiatzen da Irakaskuntzaren kalitateari buruzko Legearen aurreproiektutik ken dezan goi-mailako lanbide-heziketan sartu ahal izateko batxilergo titulua edukitzearen nahitaezkotasuna".

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Socialistas del

Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztutako mozioa atzera bidali duela jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen. Mozio hori 2002ko ekainaren 24ko 69. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

F saila:
GALDERAK

Galdera, Olaztiko harrobiko leherketen eraginei buruzkoa

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Olaztiko harrobiko leherketen eraginei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Olaztiko bizilagunak 2001eko azaroaz geroztik ari dira kexatzen herriko harrobiko leherketen intentsitatea eta eraginak direla eta. Herriko zinegotzi batzuek ere bere egin dituzte protesta horiek eta zenbait ekimen abiarazi dituzte.

Udalak, kexak ikusita, leherketek eragindako dardarak neurtzeko azterlanak egitea agindu du. Azterlanak 2001eko abendutik eta 2002ko urtarriera bitarte egin dira. Txosten horiek sinatu gabe datozela eta zein teknikarik egin dituen jasorik ez dagoela salatu dute udal horretako zinegotziek.

2002ko apirilean, berriz, udal oposizioak salatu zuen Aldoiar, S.L. harrobia ustiatzeko ateratako lurak Arrondo eta Basatxiki alderdietako baso-eremura botatzen ari zela, basoari hondamen handia eraginez. 2002ko urrian, berriz, baso-eremuan materialak botatzea ekarri zuen leherketa gertatu zen Aldoiar harrobian.

Azken batean, antza denez, ziurgabetasun handia dago herrian leherketen intentsitatea eta dardarak direla-eta, bai eta horiek ingurumenean nahiz inguruko etxe eta eraikuntzetan izan dezaketan eragina dela eta. Izan ere, gure talde parlamentarioari herriko bizilagunek adierazi diotenez, leherketa horiek ustez eragindako pitzadurak azaldu dira zenbait etxetan.

Hori dela eta, ondokoa galdetu nahi diogu Nafarroako Gobernuari (zehazki Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari, Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo Departamentuari eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari):

– Egia al da enpresek bere emandako neurketak direla Olaztiko leherketen intentsitateari buruz Nafarroako Gobernuak dituen neurketa bakarrak? Egia al da neurketa horiek sinatu gabe eta zein teknikarik egin dituen jaso gabe daudela? Hala baldin bada, zer sinesgarritasun dute neurketa horiek Nafarroako Gobernuarentzat?

– Egin al ditu Nafarroako Gobernuak azterlanak eta neurketak Olaztiko Aldoiar eta Egibil harrobietako jarduna dela eta? Neurtu al ditu bertako leherketen intentsitatea eta leherketek eragindako dardarak? Egiaztatu al du jarduera lizentzia eta baimenek lehergai karga nahiz intentsitatea direla-eta ezarritako mugetan egiten direla harrobi horietako leherketak?

– Frogak eta neurketak egin baldin baditu, modu jarraian ala noizbehinka egin al ditu? Zenbateko maiztasunez egin ditu? Gobernuaren bitartekoak erabilia ala lanak kontratatuta egin al ditu? Zeintzuk izan dira lan eta neurketa horien emaitzak?

– Nafarroako Gobernuaren ustez, egokia izanzen litzateke, bizilagunen lasaitasuna bermatze aldera, instalazio tekniko iraunkor bat paratzea Olaztiko harrobietan egindako leherketa guztien intentsitatea nahiz dardarak era egonkor eta

iraunkorrez neurtzeko? Zenbateko kostua izanen luke gutxi gorabehera gisa horretako instalazio batek? Aurreikusi al du Nafarroako Gobernuak gisa horretako jarduketarik? Eska al lekieke enpresei neurketa-estazio iraunkorrak paratzea?

– Balioetsi al ditu Nafarroako Gobernuak harrobietako leherketek basoan eragindako kalteak? Ireki al du Nafarroako Gobernuak informazio edo zehapen espedienterik ustezko ingurumen-kalte horiek direla eta? Ireki ez baldin badu, irekitzeko asmoa al du?

– Aldoiar eta Egibilgo harrobiak ustiatzen dituzten enpresek lehengoratzeko planak bete behar dituzte bere jarduerak eragindako ingurumen-kalteak arindu eta ezabatzeko jarduera lizentzien arabera. Egiatzatu al du Nafarroako Gobernuak plan horiek betetzen ote dituzten? Egiatzatu baldin badu, zer emaitza izan dute aipatu lehengoratzeko planek?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 8an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruzkoa

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA PARLAMENTUKO TALDEAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Altsasuko Horbesal enpresaren egoerari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko eledun José Miguel Nuin Morenok, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Altsasuko Horbesal lan-sozietate anonimoa –53 pertsonako plantilla du, eta 23 bazkide dira– ordainketa-etendura egoeran da iragan abuztuaren 6az geroztik, eta behin betikoz desagertzeko arrisku handia du baldin eta haren bideragarritasuna posible egiteko neurriak hartzen ez badira.

Azken urteotan, enpresa horrek sektore eolikora bideratu du bere jarduera, eta EHN-Energía Hidroeléctrica de Navarrarekin kontratuak egin izan ditu.

Botere publikoek –Nafarroako Gobernua– krisian diren enpresei berriz ere bideragarri izaten laguntzeko araudia foru erkidegoan egon badagonez, hauxe jakin nahi da:

– Nafarroako Gobernuak, eta Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo Departamentuak zehazkiago, ba al du Horbesalek bizi duen egoeraren berri? Jaso al du Horbesalen eskaera egoera aztertzearen biltzeko? Hala baldin bada, zein izan da departamenduaren erantzuna?

– Nafarroako Gobernuaren iritziz, Horbesal enpresaren egoera sartzan al da foru erkidegoko araudian jasotako kasuen artean, alegia, botere publikoek krisian diren enpresei berriz ere bideragarri izaten laguntzeko kasuen artean?

– Zer erabaki edo jarduketa egin du edo egin asmo du Nafarroako Gobernuak Industria eta Teknologia, Lan, Merkataritza eta Turismo Departamentuak Horbesal berriz ere enpresa bideragarria izan dadin eta, horrenbestez, lanpostuak bermatzeko?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 7an

Foru parlamentaria: José Miguel Nuin Moreno

Galdera, SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren funtzionamenduari eta egokitzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak SOS Navarra-Larrialdien Koordinaziorako Zentroko Positrom sistema informatiko berriaren funtzionamenduari eta egokitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

SOS Nafarroa-Larrialdien Koordinaziorako Zentroan Positrom sistema informatiko berria 2001eko irailean ezarri zenetik igarotako hamasei hilabeteotan hainbat arazo sortu ditu, eta hainbatetan Coordcom sistema zaharra erabili behar izan da haren ordez. Urtarrilean bertan Coordcom

sistema zaharra jarri behar izan da 112ko deiak hartzeko.

Nafarroako Gobernuak, 2002ko maiatzaren 2ko erantzunean, sistema ezartzeko azken epea iragan abenduaren 31n bukatzen zela esan zuen.

Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu:

1. Positrom sistema berria ezartzeko fasea bukatuta, betetzen al ditu erosteko baldintzetan ezarritako funtzionamendu arloko betekizun guztiak?

2. Positrom sistema egokitzeko azken fasea abenduaren 31n bukatuta, bermatuta dago Positrom sistema soil-soilik erabilia larrialdiak artatzekoan larrialdi-antolamenduen koordinazioa? Konpondu al dira deien moteltasunak eta ataskoek eragindako arazoak?

3. Positrom sistema erabat egokitzeko Gobernuak enpresa hartzaileari eman zion epea bukatuta, zer ordainketa egin da gaur arte?

4. Sistema berriak zerbitzua langile operadoreekin indartzea eskatu du azken hilabeteotan. Zer plantilla jotzen da beharrezkotzat sistema berriarekin hiru txandetan operatzeko?

Iruñean, 2002ko urtarrilaren 10ean

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiko langile batzuen “zerbitzu eginkizunen” araubideari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña

Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiarri, idatziz erantzun diezaion:

Departamentu horretako langileei buruz hedabideetan oraintsu azaldu diren informazioak direla-eta, foru parlamentari honek haxe jakin nahi du:

Ea Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Departamentuko zenbait langile “zerbitzu eginkizunetan” sartu edo ordezkatu izan den.

Hala baldin bada, zehaztu zein diren pertsona horiek, zer lanpostu betetzen duten, zer lanbideprestakuntza duten eta zer lanbidetatik datozen.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 14an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, Ave Maria ikastetxe publikoaren handitzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CARLOS CRISTÓBAL GARCIA JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carlos Cristóbal García jaunak Ave Maria ikastetxe publikoaren handitzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carlos Cristóbal García, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, ondoko galdera egin du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzuteko:

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko ekainaren 20an, mozio bat onetsi zuen, eta haren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatu zuen Arrotxapeneko hezkuntza premiei erantzun diezaien. Hona erabakia:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du Ave María ikastetxea handitze-proiektuaren presako tramitazioari ekin diezaion, Arrotxapeko egungo eta etorkizuneko premiei erantzuteko.”

Gobernuak mozio hori aplikatzeko asmorik duenentz jakiteko denbora aski iragan denez, haxe jakin nahi dugu:

Zer aurreikuspen egin du Gobernuak Ave María ikastetxe publikoa handitzeko?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Cristóbal García

Galdera, erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak erasoen ondoriozko banantze eta dibortzioen indizeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-

tillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Ba al du Nafarroako Gobernuak ikerlanik jakin ahal izateko zein den erasoengatik gertatzen diren banaketa eta dibortzioen kopurua? Hala bada, ikerketa horrek zer datu ematen ditu eta agresio motaren arabera zer nolako ehunekoak ematen dira?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Galdera, konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direneko kasuen ehunekoari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak konpentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direneko kasuen ehunekoari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-

tillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuak egin al du ikerketarik, jakin ahal izateko banaketa edo dibortzio kasuetan, mantenerako pentsioetan eta konpentsazio pentsioetan, zenbatekoa den ordaintzen ez direnen ehunekoak? Hala bada, zer datu ematen ditu ikerketa horrek?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Galdera, Kopentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Kopentsazio- eta mantenu-pentsioak ordaintzen ez direnerako berme-funts bat sortzeari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Zer irizten dio Nafarroako Gobernuak banaketa edo/eta dibortzio epaietan ezarritako mantenu- eta kopentsazio-pentsioak ordaintzen ez diren kasuetarako berme-funtsa sortzeko aukerari?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Galdera, Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak Nafarroako familiari buruzko publizitatea egiteko gastaturiko diruari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Cas-

tillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun dezan.

- Zenbat diru bideratu da, abian jarri zenetik aitzina, Familiari laguntzeko plana ezagutzera emateko? Zehaztu hedabide motaren arabera (prentsa idatzia, telebista, telefono-kabinak eta abar) eta hilabeteen arabera.

- Zenbat diru aurreikusi da xede horretara bideratzea 2003. urtean? Zehaztu aurreko galderan bezala.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Galdera, “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak “Lagun Etxea” izenekoaren plaza batzuen hitzarmena bertan behera uzteari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Iragan abenduaren bukaera aldean ezagutu genuen, hedabideen bidez, Lagun Etxeko hainbat plazari buruzko ituna desegiteko erabakia. Zer dela-eta hartu da halako erabaki bat?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Galdera, “Sancho el Mayor” helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI CAROLINA CASTILLEJO HERNÁNDEZ ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak “Sancho el Mayor” helduentzako elkarteak jasotzen dituen laguntzei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Carolina Castillejo Hernández andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituz, ondoko galdera aurkeztu du Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak idatziz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernuaren zer laguntza jaso du eta jasotzen du “Sancho el Mayor” zaharren elkarteak?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carolina Castillejo Hernández

Galdera, Lizarran dauden bidezainen etxe hustuei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Lizarran dauden bidezainen etxe hustuei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

Lizarrako bidezainen etxeak direla-eta –gaur egun hutsik daude–, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zertarako erabiliko ditu Gobernuak etxe horiek?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzako haurtzaindegiei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamen-

duaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun diezaion:

0 eta 3 urte bitarteko haurtzaindegia direla-eta, foru parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

– Zenbat daude Nafarroan eta zenbat dira Foru Gobernuaren menpekoak?

– Zenbat haurtzaindegi hartu dituzte bere gain udalek?

– Aurreikusi al du Gobernuak haurtzaindegi gehiago sortzea? Non? Noiz?

– Lizarrako haurtzaindegia zein egoeratan dago? Zenbat haur joaten dira hara? Haurtzaindegia desagertzea aurreikusi al da?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 21ean

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko kardiologoari esleituriko eginkizunei buruzkoa

FORU PARLAMENTARI ELENA TORRES MIRANDA ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak Tuterako Reina Sofía Ospitaleko kardiologoari esleituriko eginkizunei buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeko foru parlamentari Elena Torres Miranda andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Osasun kontseilariari, idatziz erantzun dezan.

Urte berriarekin batera nire taldeak kexak jaso ditu, patologia kardiakoa fase akutuan duten gaixoei Tuterako Reina Sofía Ospitalean ingresatuta egon diren bitartean emandako osasun laguntza dela eta.

Nafarroako Erriberako herritarrek salatu dute bestelako tratua jasoko luketela Iruñeko ospitale batean ingresatuta egonez gero, eta hortaz, bigarren mailako herritar sentitzen direla, noiz eta osasuna dela-eta une zailak bizitzen ari direnean.

Zehatz-mehatz, kexen arabera, gaixo horiek, patologia kardiako baten ondorioz ospitalizazioko solairu batean ingresatuta egonik, ez dituzte ez artatu ez bisitatu ez tratatu ere dagozkien fakultatibo espezialistek, kardiologoek alegia.

Egoera horren aurrean hauexek dira gure galderak:

1. Zer eginkizun esleitu zaizkio Tuterako Reina Sofía Ospitaleko kardiologoari haren lanaldirako?

2. Zer dela-eta aldatu dira Tuterako kardiologoena lana eta antolamendua? Noiztik aitzina eman da aldaketa hori?

3. Nafarroako osasun arloko arduraduna zaren aldetik, bat egiten duzu azaldutako osasun-politikarekin eta patologia kardikoarengatik Tuteran ingresatuta dauden gaixoak kardiologo batek zaindu eta tratatu ez izanarekin?

4. Nafarroan kalitatezko osasunaren aldeko apustua egiten baldin bada, lehen nahiz bigarren mailako prebentzioan eta patologia kardiakoko laguntzan inbertitu nahi baldin bada, eta kontuan harturik bihotzari eragiten dioten prozesuen garrantzia eta gisa horretako gaixoen kopuruak gora egin duela, aztertu al da Tuterako ospitalean guardia lokalizatuko edo bertan egon beharreko kardiologo bat izatea komenigarria eta beharrezkoa dela? Hala baldin bada, zer ondorio atera da?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 24an

Foru parlamentaria: Elena Torres Miranda

Galdera, mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI M^a ISABEL ARBONIÉS BERMEJO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak mendetasuna duten kideak dauzkaten familiei ematen zaien laguntzari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeko foru parlamentari M^a Isabel Arboniés Bermejo andreak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, idatziz erantzuteko.

Gaur egun, gero eta familia gehiagok artatu behar dituzte Nafarroan ezgaitasuna, eritasun kronikoa edo/eta eritasun andeatzailea duten pertsona bat baino gehiago. Gero eta errazago aurkitzen ahal dira gaitasunak gutxituta eta euren bizi-ingurunean autonomia eta mugikortasuna galdua dituzten bi pertsona edo gehiago bizi diren familiak.

Biztanleria zahartzeak, zenbait eritasun kroniko bihurtzeak eta egungo familia-unitateak txikiagoak izateak ezinezko egiten dute batera zaindu ahal izatea familia berean laguntza espezializatua eta zainketa intentsiboak behar dituzten aurreko nahiz ondorengo ahaideak, arduraren emakumeena baita kasuen % 80an. Emakume zaintzaileen batez besteko adina berrogeita hamar urtetik gorakoa da Nafarroan.

Bestalde, zentro espezializatuetan sartu beharra duten bi kide edo gehiago dituzten familientzat arazo handia da, lortzen zaila delako eta kostu handia dakarrelako, senitarteko horietako bat inora eramatea –aurreko ahaidea bada zahar-etxe batetara, eta familia unitateko beste kide bat bada ezgaituak artatzeko zentro batetara nahiz adimena gaixotasuna duten pertsonentzako zentro batetara, Nafarroakoa nahiz Nafarroatik kanpokoa izan–.

Egoera hori bizi duten familia horietako batzuek azaldutako kezka eta larritasuna ikusita, hauxe jakin nahi da:

1) Zer ari da egiten Nafarroako Gobernua familiako kide bi edo hiruk laguntza espezializatua behar duten familien kasuan?

2) Familiaren zer per capita errentatik aurrera eskatzen da bi aldean artean ordaintzea ezgaitasuna edo adimena gaixotasuna duten pertsonentzako zentro espezializatuetakozko plazak?

3) Kostu osoaren zer ehuneko ari zaie kobratzen gaixoei San Frantzisko Xabierkoa zentro psikiatrikoan eta ezgaitasun psikiko, adimena gaixotasun eta eritasun andeatzaileak dituzten pertsonetan Nafarroan espezializatuta daude beste zentro batzuetan sartzeko?

4) Zer ordainketa-betekizun, familia-egoera edo bestelako baldintza izaten du kontuan Nafarroako Gobernuak familia-unitate berean ezgaitasuna duen kide bat baino gehiago duten familia horiei zerbitzu espezializatu bidez laguntza emateko, hala etxean bertan nola eguneko zentroetan eta zahar-etxe laguntzadunetan?

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: M^a Isabel Arboniés Bermejo

Galdera, Guardia Zibilak San Miguel de Aralar II Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasle eta irakasleei emaniko tratuari buruzkoa

FORU PARLAMENTARI BEGOÑA ERRAZTI ESNAL ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak Guardia Zibilak San Miguel de Aralar II Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasle eta irakasleei emaniko tratuari buruz egindako galdera tramitera onartzea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betetzeko, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

GALDERAREN TESTUA

EAJ/PNV Parlamentuko Taldeari atxikitako Eusko Alkartasuneko foru parlamentari Begoña Errazti Esnal andreak, Biltzarreko Erregelamenduaren babesean, honako galdera hau egin dio Nafarroako Gobernuako Unibertsitateetarako eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiari, idatziz erantzun diezaion:

Hedabideetan agertutako informazioaren arabera, iragan urtarrilaren 20an San Miguel de Aralar Bigarren Hezkuntzako Institutuko ikasle eta irakasleek Guardia Zibilaren tratu txarrak pairatu zituzten hezkuntza jarduera batetik itzultzean. Ikasleak zeramatzan autobusa gerarazi zuten, eta bertan zihoazenek tratu iraingarria jasan zuten. Gertakari horiek direla-eta, parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

1. Eskatu al du Foru Gobernuako Hezkuntza Departamentuak edo beste edozein departamentuk gertatutakoaren inguruko azalpen edo argibide ofizialik?

2. Hala baldin bada, esan zer azalpen eman zaion A-15ean gertatutakoari buruz.

3. Hala ez baldin bada, esan zergatik ez den azalpenik eskatu Foru Gobernuaren menpeko ikastetxe publiko bateko ikasle eta irakasleen aurka hezkuntza jarduera bat egiten ari zirela egindako eraso bati buruz.

Iruñean, 2003ko urtarrilaren 29an

Foru parlamentaria: Begoña Errazti Esnal

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Deialdia, Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzekoa

Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuaren zerbitzuko administrazio kudeaketako teknikari baten lanpostua oposizio bidez eta txanda irekian betetzeko asmoz Mahaiak 2002ko apirilaren 15eko erabakiaren bitartez deitutako oposizioa amaiturik (2002ko apirilaren 23ko 38. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta 2002ko maiatzaren 8ko 56. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua), ikusita epaimahaiak emandako izendapen proposamena (2002ko abenduaren 31ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratua) eta interesatuak aurkeztutako dokumentazioa, deialdiko 7.2 oinarriak xedatutakoarekin bat, aipatu deialdiko 8. oinarrian Mahaiari emandako ahalmenen arabera, hona ERABAKIA:

1. Laura Vidán Astiz andrea Nafarroako Parlamentuko funtzionario izendatzea, administrazio kudeaketako teknikari gisa. Lanpostu hori Teknikari Diplomatuen Eskalako Teknikarien Kidegoaren barruan dago.

2. Interesatuak hilabete bateko epea izanen duela, izendapena jakinarazten zaionetik aitzina, lanpostuaren jabetza hartzeko xedatzea.

3. Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

4. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Biltzarrean izan diren alta eta baja

Baja: Pilar Aramburo González andrea

Alta: Concepción Fernández de Pinedo Sáez and.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru parlamentari Concepción Fernández de Pinedo Sáez andrea Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2003ko otsailaren 3an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

Foru parlamentari Concepción Fernández de Pinedo Sáez andreak idazki bat aurkeztu du Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldean sartu dela jakinaraziz. Hori dela eta, hona ERABAKIA:

1. Idazki horretaz jakitun dagoela adieraztea.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2003ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urte bat 40,27 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 1,02 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 1,20 »	